

2. MAILAKO ORIENTAZIO PLANA 2019/2020

A- AURKEZPENA

B- IKASTOLAN BERTAN IKASLEEKIN EGINGO DIREN SAIOAK

C- IKASTOLATIK KANPO IKASLEEKIN EGINGO DIREN EKINTZAK

D- ORIENTAZIO HITZORDURAKO ESKAERA-ORRIA



2. MAILAKO ORIENTAZIO PLANA

A-AURKEZPENA

Oiartzo Batxilergo ikastolak Orientazioa eskaintzen die bere **ikasle guztiei**. Ikasle bakoitzaren beharrei erantzun eta era berean guztientzako lagungarri diren orientabideak denengana heltzeko helburuarekin antolatua dago zerbitzua. Etorkizuneko asmoak, aukerak, baldintzak eta eginbeharrak zeintzuk diren jakin eta **zalantzak argitzen joatea** da helburua.

Plangintza bat jarraitzen da. Horrela, ikasle guztiek ikasturtean zehar hartu beharreko erabakien inguruko gaiak lantzen dira, informazio gaurkotua eskuratzen da eta bete beharreko prozeduren jarraipena egiten da. Ikasturteko egutegiari egokitzen zaio plangintza.

Ikasturte hasieran 2. mailako ikasle bakoitzarekin hitzordu bat zehazten da. Orientatzaileak hitzordu horien egutegia aurkezten die ikasleei irailean.

Ikasgeletako informazio saio orokorrak lau izan ohi dira: irailean, azaroan, otsailean eta maiatzean. Saioak gelaka egiten dira eskola-ordutegiaren barruan. Orientatzaileak garaian garaiko argibideak ematen ditu eta hitz egindakoari buruzko informazioa banatzen du, paperean nahiz digitalean, Moodle plataforman.

Ikasle eta ikasle-ohien arteko topaketak egingo dira urrian, azaroan eta abenduan. Lanbide Heziketako Ziklo batean dabiltzan edo Unibertsitateko Gradu bat egiten ari diren ikasle ohien ahotik, ikasketa edo jakintza esparru horiei buruzko ikuspegi ahalik eta osoena eta freskoena jaso ahal izango dute horrela gure ikasleek.

Galdeketak eta izen-emateak burutzen dira ikasturtean zehar, ikasleen asmoak jaso, kanpoko orientazio ekintzak antolatu eta izen-emate garrantzitsuak gauzatzeko. Ikasleak interesatzen zaizkion ekintzetan ematen du izena.

Ikasleak eskatu diezaioke zuzenean hitzordua orientatzaileari, aurrez horretarako finkatutako ordutegi proposamen bat badago. Bestalde, **Korreo-elektronikoa** erabili daiteke orientatzailearekin harremanetan jartzeko: aetxaniz@oiartzoikastola.net. Ikastolara iristen diren etorkizuneko ikasketei buruzko informazio-anitzak ere korreo elektronikoko bidez birbidaliko dira.

Unibertsitateak bisitatzea eta huen aurkezpenak entzutea, informazio zuzena jasotzeko aukera ezin hobea da. Azaroan, abenduan eta urtarrilean gertuko unibertsitate pribatuekin harremanetan gara. Aurrerago **Lanbide Heziketako Ikastetxeekin** eta **Euskal Herriko Unibertsitate Publikoarekin**. Martxoan, zehazki, hiru egunez; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusak bisitatzen dira.

B- IKASTOLAKO SAIOAK

EGUNA*	EKINTZA	BALIABIDEAK	GAIA
Urtia 7-11 (55 min)	1.INFORMAZIO SAIO OROKORRA	GELAKA PROIEKTOREAREKIN MOODLE PLATAFORMAN (orientazio saila) ESKUORRIAK	GAI ZERRENDA: -ORIENTAZIO PLANGINTZAREN AURKEZPENA: egutegia, baliabideak, Moodle, saioak, irteerak ... -INFORMAZIOA ERABILGARRIA: batxilergo motak, ibilbideak, informazio Link interesgarriak, Lanbide Heziketa, Unibertsitatea (Hautaprobaren ezaugarriak, gutxieneko notak, haztatze parametroak, lehentasunak -INFORMAZIO gehigarria: Orientazio premia berezia dutenentzako laguntza
Urtia 7-11	1.GALDETEGIA	MOODLE BITARTEZ ETXEAN ORDENAGAILUZ	GAIA: -IKASLEARI BERE ASMOEI BURUZKO GALDEKETA PASAKO ZAIO. -GALDETEGIAREN HELBURUA: ARLOKA TALDE TXIKIAGOTAN BILDU ETA INFORMAZIO ZEHATZAGOA PARTEKATZEA
URRIA	ELKARRIZKETAK	BILERA GELAN	IKASLEEKIN BARKARKAKO ELKARRIZKETEI HASIERA
Urtia 21-25 (20 min)	1.IZEN-EMATEA	GELAKA ORIENTATZAILEA MOODLE BITARTEZ	GAIA: -MONDRAGON, DEUSTO ETA TECNUN GERTUKO UNIBERTSITATE PRIBATUEN INFORMAZIO SAIOETARAKO IZEN EMATEA. -GERTUKO UNIBERTSITATE PRIBATU HAUEN ESKAINTZARI BURUKO INFORMAZIOA
Abenduak 2-5 (55 min)	2.INFORMAZIO SAIO OROKORRA	GELAKA PROIEKTOREAREKIN MOODLE PLATAFORMAN (orientazio saila) ESKUORRIAK	GAI ZERRENDA: -LEHEN EBALUAZIOKO EMAITZAK -HAUTAPROBA: AZALPENA -IKASLEAREN ZAKO ORIENTAZIO-AGENDA (ikasturterako dokumentua) -INFORMAZIO BERRIA: EHUk ESKUALDEAN BURUTZEN DUEN INFORMAZIO SAIOA, EHUren AZOKA EGUNAK, AURKEZPENAK, ATE IREKIAK ...
Azaroa 25-30 Abendua 9-13 Urtarrila 13-17 Urtarrila 20-24	IKASLE OHIEKIN TOPAKETAK	OIARTZOKO ARETO NAGUSIAN 15:00-16:30	ELKARRIZKETAK IKASLE - OHI GONBIDATUEKIN JAKINTZA ESPARRUETAN ANTOLATUTA GOI MAILAKO ZIKLO ETA UNIBERTSITATEKO GARDUAK
Urtarrilak 27-31 (55 min)	3.INFORMAZIO SAIO OROKORRA + 2.GALDETEGIA	GELAKA PROIEKTOREAREKIN MOODLE PLATAFORMAN (orientazio saila) ESKUORRIAK GELAKA	GAI ZERRENDA: -HAUTAPROBA MOTA HAUTATU ETA 8 GRADUEN AUKERAKETA EGITEKO ARGIBIDEAK -SIMULAZIO ARIKETA BAT= GALDETEGIA -INFORMAZIOA: EHU izena emateko EPE OFIZIALA (URTARRILA/OTSAILTIK - MARTXOA BUKAERARA) ETA OIARTZOKOA (2. ebaluaziotik aurrera 3 asteko epea: *OTSAILAK 14 - MARTXOAK 8 -EHUko ATE IREKIETARA ONLINE IZEN-EMATEA EGITEKO ARGIBIDEAK: ELKARREKIN JOATEKO EGUNAK ETA LEKUAK
Otsaila 6	GURASOENTZAKO ORIENTAZIO BILERA	OIARTZOKO ARETO NAGUSIAN 18:30	GAI ZERRENDA: UNIBERTSITATE ETA LANBIDE HEZIKETARAKO SARBIDEARI BURUZ ETA IZEN-EMATE PROZESUARI BURUZKO HITZALDIA
Otsaila 12-14 (35 min)	GAUR APLIKAZIOAN IZEN-EMATEA	GELAKA IKT GELAN ORIENTATZAILEA +ZUZENDARITZA	-EHUn aurre-matrikula zabalik dagoenez IKT gelan aplikazioari buruzko azalpenak eman, lehen aldiz sartu eta ondorengo 3 ASTETAN, martxoak 8rako*, ikasleek Hautaprobaren izen-eman dutela ziurtatzen da. -Bigarren epe bat zabalduko da maiatzean HAUTAPROBAN aldaketak egin ahal izateko.
Maiatza 27-31	4.INFORMAZIO SAIO OROKORRA	IKASTURTE AMAIERAKO ARGIBIDEAK TUTOREEK	-BATXILERGOA GAINDITU ONDORENGO BETEBEHARRAK ETA ARGIBIDEAK -1. ETA 2. DEIALDIKOENTZAT (GUZTIENTZAT)

C- IKASTOLAZ KANPOKO EKINTZAK

*Datak erreferentziazkoak dira.

EGUNA*	EKINTZA	GAIA	BALIABIDEAK
Azaroa	1.MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN AURKEZPENA	-AURKEZPENA OIARTZON -INTERESA DUTEN IKASLE GUZTIENTZAT -SARRERA OROKOR BAT ETA GERO ARLOKA BANATZEN DIRA TALDEAK GELA EZBERDINETAN ORIENTATZAILEA+ZUZENDARITZA +IRAKASLEAK	-GELA PROIEKTOREAREKIN -Mondragoneko hiru / lau irakasle -IKASLEENTZAKO TXOSTENAK -GOIZEAN
Abendua	2.DEUSTO DONOSTIAKO UNIBERTSITATERA BISITA	-AURKEZPENA ETA BISITA GIDATUA DEUSTON (DONOSTIA) -INTERESA DUTEN IKASLE GUZTIENTZAT ORIENTATZAILEA	-DEUSTURA JOATEN GARA AUTOBUSEZ -ARRATSALDEAN, 15:00ean OIARTZOTIK atera -18:00ak aldera amaitzen da bisita. Itzulera ere autobusean. -Ikasleek INFORMAZIO zehatza eska dezakete eta AURRE-MATRIKULAZIO prozesuaren berri eduki.
Urtarrila	3.TECNUN UNIBERTSITATERA BISITA	-AURKEZPENA eta BISITA GIDATUA TECNUNEN (DONOSTIA) -INTERESA DUTEN IKASLE GUZTIENTZAT ORIENTATZAILEA	-TECNUNERA JOATEN GARA -ARRATSALDEAN, 16:00 ALDERA, GARRAIO PUBLIKOAN (Mugi txartela) -18:30ean amaitzen da bisita.
Martxoa	EHUko ATE IREKIETARA HIRU IRTEERA	-IRTEERAK 3 CAMPUSETARA ETA ARRATSALDEZ -INTERESA DUTEN IKASLE GUZTIENTZAT -IRTEERA ORDUA: EGUERDIAN -AUTOBUSA OIARTZOTIK – ITZULERA HERRIRA. -18:00ean AMAITZEN DIRA BISITAK. -10€ /PERTSONAKO kostea du IRTEERA BAKOITZAK ORIENTATZAILEA + IRAKASLEAK	-EGUN BAKOITZEAN FAKULTATE <u>BAT</u> BISITA DEZAKE IKASLEAK. -GRADUEN AURKEZPENA ETA LEKUA EZAGUTZEN DIRA
Martxoa	4.DON BOSCO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXERA BISITA	AURKEZPENA eta BISITA GIDATUA DON BOSCON (DONOSTIA) -INTERESA DUTEN IKASLE GUZTIENTZAT ORIENTATZAILEA	-DON BOSCORA JOATEN GARA AUTOBUSEZ GOIZEAN



2. MAILAKO ORIENTAZIO PLANA

D-ORIENTAZIO HITZORDURAKO ESKAERA-ORRIA

HITZORDURAKO ESKAERA ORRIA

IKASLEAREN IZENA eta GELA:

Azaldu labur gaia, galdera edo zalantza:

ELKARRIZKETARAKO ORDUA AUKERATU:

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
09:35-10:25		10:45-11:35	10:15-11:10	10:15-11:10
<input type="checkbox"/>	X	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Orria bete eta orientatzaileari helarazi

Orientatzaileak hitzordua BAIEZTATU behar du